

Añarbeko uren gestioa daraman 'Aqualia' enpresako langile komiteak lanuzteak deitu ditu

Langileen artean
soldata ezberdinak daudela
salatu dute.

'Aqualia'k eta Agasak
pleguetako oinarriak ez
dituztela bete ere salatu dute.

Lehenago astean lanuzteak
izan ziren eta maiatzaren
29rako ere deitu dute. /2



Hip-hop zaleek gozatu ederra hartu zuten

HIP-hop eguna izan zen atzo, eguraldia medio Atsegindegin. Zaletuek gozatu ederra hartu zuten, goizean zehar praktikatzeko aukera izan baitzuten eta arratsaldean hip-hop-eko artisten gauzak ikusi eta entzunez gozatzeko. Urterik urte zaletuak areagotzen ari zaizkio hip-hop mugimenduari Hernanin, eta atzo nabarmendu zen hori. ||

❖ EGUZKI

Renfe-ren segurtasun falta salatu du Eguzkik

Renfeko estazio eta apeaderoetan dagoen segurtasun falta salatu du Eguzki talde ekologistak /2

◆ FUTBOLA

Berdinketa Zubipen

Etxean jokatu duen azken partiduan 2-2 berdindu zuen Hernanik. /3

❖ CHILLIDA LEKU

Ipuina oinarri gaur, Museoen Nazioarteko Egunean

Museoen Nazioarteko Eguna da gaur eta ospakizun berezia egingo dute Chillida Leku museoan. Ipuina izango da gaur oinarri eta Oihulari Klown taldeko kideak ariko dira Chillidaren lana eta ingururako egokitutako ipuinak kontatzen. Goizeko 11:00etan hasiko da eta ordu erdiro ipuin bat kontatuko dute, 13:00ak arte. Museoko prezioa betikoa izango da, baina bisitaldi gidatuak doan izango dira (11:00, 12:15, 13:30). ||

GAUR KRONIKAN

Aqualiako langileen salaketa /2

Eguzkiren salaketa Renfeko estazioen egoeraz /2

Kirolak /3

Antton Zabala /4-5

Eskelak /7

Liburuen azokako balorazioa /8

DISEINU GRAFIKO eta sormenean oinarritutako heziketa



Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloak

TITULAZIO OFIZIALAK

Nazioarteko lehiaketak
praktikak atzerrian

IRUDIETAPENA . KARTELGINTZA . MARKETING . PUBLIZITATEA . SERIGRAFIA .
ARGAZKIGINTZA . BERRUKIPEN DIGITALA . WEB DISEINUA . MULTIMEDIA . MAKETAJINTZA .

INFORMAZIOA **943 310 873**

Tietz Pasaletxea 85 • 48008 Donostia • Gipuzkoa • Fax: 943 310 073 www.ceinpro.es




Amegar

Etxe Tresnak - Altzariak

ESKANTZA

**FORMIKAZKO
SUKALDEETAN**

Industria arretasunik
- Finantziaketa -
- (2) helburuetan interesrik gabe -



Fitxili azaru
BERRIAK Tzartela

Txirrila kalea, 13-15

Tel.: 943 55 11 25 - Faxa: 943 55 18 03

Añarbeko uren gestioa daraman 'Aqualia' enpresako langileek salatu dute, bi konbenio desberdin aplikatzen zazkiela lan bera egiten duten langileei

Aspaldi salatu zuten egoera, baina ezer ez dela aldatu nabarmendu dute. Enrique Noain Presidentearen dimisioa eskatu du komiteak «arazoa konpontzeko lan egin beharrean, langileen ekintza guztiak deslegitimatzen eta zikintzen saiatu delako». Maiatzaren 14an parao egin zuten eta maiatzaren 29rako ere deitu dute.

AÑARBeko Uren gestioa daramakien Aqualia Gestion Integral del Agua enpresako langileek lanuzteak eta kontzentrazioak deitu dituzte, beren lan baldintzak direla eta. Joan den asteazkenean lau orduko lanuztea egin zuten eta Donostiako Udaletxe aurrean kontzentrazioa. Horrez gain, maiatzaren 29an beste lanuzte bat deitu dute, goizeko 08:00etatik 13:00etara. Hiru puntu dira erabaki hau hartzerantz behartu dituztenak, langileen komiteak prentsa ohar batean zabaldu duenez:

1) Soldata desberdinak

Añarbe-Añarbeko Urak SA (Agasa) enpresa publikoak subkontratatuta Aqualia enpresak eramaten du uraren esplotazioa eta mantenimen-

dua; alegia, berak dira ur garbia potabilizatu, eta banatu eta ur zikina bildu eta garbitzeko ardura dutenak, Hernani, Donostia, Errenteria, Astigarraga, Oiartzun, Urnieta, Usurbil, Lasarte, Pasaia eta Lezoko herrietan (350.000 biztanle inguru). Guztira 77 langile dira, eta bi konbenio aplikatzen direla salatu dute, eta horrek 3 soldata eskala sortzen dituela, 55 egun arteko jornada desberdintasunak urtean, baja, lizentzia eta abar luze bat. Plantilaren %40k, 1.000 euroko soldata duela nabarmendu dute «urteko 365 egunetan 3 turnotan lan eginda». Hiru urte daramazkete soldata igoera gabe «ezta KPIa ere».

2) Oinarriak bete ez

Enpresako langile komiteak

egiten duen beste salaketa bat da, badirela bi urte Agasak eta Aqualiak ez dituztela betetzen adjudikazio pleguetako oinarriak «txantaje moduan», eta langileei 300.000 euro inguru zor dizkietela.

«Agasa eta Aqualiak 2 urte daramazkete subkontratuko pliegoaren oinarriak bete gabe, txantaje moduan»

«Langileen %40k 1.000 euroko soldata du, urteko 365 egunetan 3 turnotan lan eginda»

3) Sententzia errekurritua

Langile komiteak gogorarazi

du, 2007ko urriaren 17an, Donostiako Lan Arloko Epaitegiak sententzia eman zuela eta honela diola (gaztelaraz): *No ha de lugar a la aplicación de doble escala salarial a los trabajadores de Aqualia*. Langileek diote enpresak errekurritu egin duela sententzia «dirudienez ulertzen ez dutelako».

Presidentearen dimisioa

Aqualiako langileek Enrique Noain Agasako presidentearen dimisioa eskatu dute, aurrez egin zuten moduan «bere erantzukizuna hartu beharrean, Aqualia subkontrataren eskudopean, langile ordezkari legalaren ekintza deslegitimatuta eta zikintzen saiatu baita, Agasako administrazio kontseiluan batatetik eta Udaletxetara kartak bidalita bestetik».

Erremedioa

Oraingo egoerak erremedio erraza duela nabarmendu du Langile komiteak: «2002an lortutako akordioari helduta metaleko konbenioa aplikatzea langile guztiei, gaur egun plantilaren %60ari aplikatzen zaion moduan. Eta horren esan nahiko luke, Aguas de Guipuzcoa-Gipuzkoako Urak enpresako eta Txingudiko zerbitzuetako langileek, gure lan bera egiteagatik dituzten baldintza berdinak izango genituzkeela».

Lanuztearen eraginak

Lanuzte hauek ur garbiaren horniduran ez dute arazorik sortuko komitearen hitzetan, baina ur zikinen kasuan itsasora isuriren batzuk izan litezkeela jakitera eman dute. ■

❖ SAN JOANAK

Haurren aureskuko entsaioak bihar hasiko dira

San Joanetan haurren aureskua izango da aurten ere, urteroko moduan. Bihar hasiko dira entsaioak, eta astelehen eta ostegunetan izango dira, 18:30etan, Urumea ikastolan, Gay Mur eraikinean. Izen ematea Biterin egin behar da eta beharrezkoa da haurrek aurten 5 urte betetzea. Izen emateko unean bikotearen izena ere

eman behar da. Guztira 50 bikotek hartu ahal izango dute parte. ■

❖ HERNANIALDEKO NAFARTARRAK

Ausa Gaztelura

Hernanialdeko Nafartarrak elkarteak mendi irteera antolatu du gaur Ausa Gaztelura. Ausa Gaztelu Aralarko mendilerroan dago, Zaldibi eta Abaltzisketa artean, ia 1000 metrotara, eta aintzina-kostako bidea zaintzen zuen nafar gaztelua da. Goizeko 10:00etan jarri dute hitzordua, Larraitzen. ■

❖ MOLOTOFF IRRATIA (FM 91.8)

Kaleko ahotsak 'Krokombo Potombo' irratsaioan

Molotoff irradian *Krokombo Potombo* irratsaioa izango da gaur, 16:00etatik 18:00etara. Herria barrena ibiliko dira elkarriketak egiten eta zuzenean emituko dituzte. Irratsaio «ez-demokratikoa» da, esatarien hitzetan, eta elkarriketak, umorea eta eromena dira nagusi. Erreplikapena bihar izango da, 17:00etatik 19:00etara. ■

Eguzkik Renferen segurtasun falta salatu du

EGUZKI talde ekologistak Renferen segurtasun falta salatu du, Hernanin eta Tolosan izan diren bi istripu larrien ondotik, Hernaniko Kronikara bidalitako prentsa ohar batean. Estazio eta apeaderotan dagoen segurtasun faltaren ondorio izan dira bi pertsonaren heriotza ekarri dute istripu hauek, Eguzkiren iritzian «ez da kasualitate hutsa izan». Hernaniko istripuaren antzekoak askotan gertatzen direla ere nabarmentzen du, «persona bat trenak harrapatzea trenbidea gurutzatzen ari dela». Eguzkik gogora ekarri du urtarrilean eman zutela «Estatuari eta Renferi dagozkien Gipuzkoako estazio eta apeadero gehienek daukaten abandono egoeraren berri». Eguzkiren iritzian istripuen eragile nagusi dira, geroz eta merkantzia gehiago pasatzea, eta ibilbide luzeko trenen abiadura haundia; trenbideak pasatzeko azpiko pasabide ezarekin eta seinale akustiko edo bisual ezarekin batean. Erantzuleak Espainiako Gobernua, Renfe eta Adif direla dio Eguzkik eta Udaletxeei eskatu die esku hartzeko gaian. «Onartezina da, dirua eta ahalegina gastatzea gutxi erabiliko duten tren batean (AHT), eta aldiriko sarea, egunero 25.000 gipuzkoar baino gehiagok erabiltzen dutena, zahartzea atentzio eta hobekuntza faltagatik. Eta okerrago dena, ebitatu zitezkeen istripuak gertatzea». ■

❖ KANTUA

Abesbatza doinuak atzo Milagrosan

Udal Musika Eskolako abesbatzak eta Lezoko Txinparta abesbatzak kontzertua eskaini zuten atzo Milagrosan. Kantari gazteek osatzen dituzte bi abesbatzak eta berak entzutera bete egin zen Milagrosa. ■



◆ FUTBOLA - GORENGO MAILA

Berdinketa, Zubipe despeditzeko

Hernanik	2
Idiazabalek	2

HERNANIK berdinketa batekin esan zion atzo agur Zubiperi, aurtengo denboraldian, Idiazabalen aurka. Partidua ez zen ona izan, baina borrokatua bai. Hernaniarrak aurreratu ziren partiduan Ander Elgorriagaren gol bati esker. Hala ere, Idiazabal 1-2 aurretik jarri zen eta Iñigo Olasagasti izan zen berdinketaren gola sartu zuena lehen zatian bertan, jokalaririk onenaren sariak indarrak emanda-edo. Lehen zatia bukatu aurretik epaileak Hernaniko jokalaria bat espulstatu zuen eta Hernanik ezin izan zuen bigarren zatian garaipeneko golik sartu. Hurrengo astean Azkoitian jokatuko dute zuriberdeek, burua datorren denboraldian dutela.



Iñigo Olasagasti saria jasotzen, atzo Zubipen.

Olasagastiri Peña Zubiperen saria

Peña Zubipek Iñigo Olasagastiri eman zion atzo urteko jokalaririk onenaren saria,

partidu aurrean. Bere erregularitatea azpimarratu zuten eta aurrelariak erakutsi zuen erregularitate hori, hernaniarren bigarren gola eginda. ||

◆ ZIKLOTURISTAK

Zikuñako Amak argazki ofiziala du gaur Zinkoenean eta irteera Garinera

Zikuñako Amako zikloturista taldeak Garinera du gaur irteera, 88 kilometro luze. Aldez aurretik argazki ofiziala ateratzeko asmoa dute, goizeko 08:00etan, Zinkoenean. Kamixeta berriekin aterako dute argazkia eta berekin dituztenei dei egin diete erropa berriak eramateko. ||

◆ BOLA

Bolariak Zerainen

Gipuzkoako Kopako bigarren tiraldia izango da gaur Zerainen, goiz eta arratsalde. Hiru tiraldi izaten ditu Gipuzkoako Kopak eta gaurkoa da bigarrena; hurrengo astean bukatuko da Urrietako tiraldiarekin. ||



◆ PLATER TIROA

Jose Antonio Aranburu eta Roberto Garcia Tejedor tiratzaile onenak

PLATER tiroa izan zen atzo Santa Barbarako tiro eremuan, Txantxangorri elkar-teak antolatuta. Lehen mailan Jose Antonio Aranburu izan zen irabazle (30/23), Luis Mari Zerainekin desentpate gogorra egin ondoren. Iñaki Urdanpilleta izan zen hirugarren (18/30). Bestalde, bigarren mailan, Roberto Garcia Tejedorrek irabazi zuen (23/30); Oscar Redondo izan zen bigarren (16/30); eta Jose Manuel Criado hirugarren (16/30). Argazkian sarituak ageri dira. ||



◆ SASKIBALDIA

Finalaurrekoan bukatu zen abentura

Easo Elurrak	53
Hernanik	39

HERNANIKO infantilek ezin izan zuten atzo Easo-Elurra talde gogorraren kontra eta honenbestez despeditu zuten txapelketa, baina burua tente. Lehen zatian alde egin zuten donostiarrek 19-6 eta arrastan eraman zuten marka-

gailua hernanirrek hortik aurrera. Errebotean izan zuten zulorik haundiena hernaniarrek eta faltaz gehitxo kargatu ziren. Entrenatzaileek postu honek duen meritua azpimarratu dute, Gipuzkoako klub indartsuenen aurka aritu baitira jokatzeko. Finala Easoko bi taldek jokatuko dute elkarren aurka. Bestalde, kadeteek ere galdu egin zuten denboraldiko azken partiduan, 53-69. ||



Hernaniko jokalaria eta entrenatzaileak atzo, partidua hasi aurretik.

Jubeniletan Euskadiko txapelketa irabazia da Antton Zabala Arabaolaza (Hernani, 1988), behin baino gehiagotan. 20 urtez azpikoetan ere maila ona eman du. Iritsi zaio, ordea, seniorretara pasatzeko urtea. Eta bere lehen proban ez du hutsik egin. Euskadiko boulder txapeldunorde geratu da Zarautzen. Asteburu honetan Diman eskalatuko du. Diman dena eman aurretik, galde-sorta bat egin nahi izan diogu.

Antton Zabala - Eskalatzailea

Lizeaga kaleko eskalatzaileak badezake seniorretan ere

FITXA:

• **Jaiotze data:** 1988ko maiatzaren 11n, Hernanin.

• **Altuera:** 1,74 metro.

• **Taldea:** Fortuna KE


Donostia

• **Lorpenak:** Besteak beste, Euskadiko eskalada txapelketa lau urtez jarraian, gazte kategorietan. Espainiako kopa 18 urtez azpikoetan. Gainera, Europako eta Munduko txapelketetan ere parte hartu du.

Ekhi Zubiria Etxeberria

AZALPEN gisa, esan behar da, boulderra eskalada modalitate bat dela. Pareta edo "bloke" baxuak (4 metro ingurukoak gehienez, minik ez hartzeko) eskalatzen dira bertikalki nahiz horizontalki. Soka eta arnesik gabe egiten da, mormalean azpian koltxoneta jarrita. Kirol eskaladan berriz, pareta altuagoak igotzen dira. Horregatik erabiltzen dira soka, arnesa, pareteko anklajeak edo bestelako segurtasun neurriak.

Senior mailako lehen urtea da eta Zarautzen bigarren postua lortu duzu. Zein helbururekin joan zinen? Aurtengo hirugarren boulder txapelketa izan da. Nik aurreko bietan ez nuen parte hartu eta beraz, hau izan da nire lehenengo proba. Asmoa zen finalerdietan lan on bat egitea eta *bloke* guztiak osatzen saiatzea. Banekien aukerak bantutuela finalera pasatzeko eta



Antton Zabala Hatzi Klinbers rokodromoan, elkarrizketaren egunean. Ordu asko pasea da bertan entrenatzen.

ilusio handiarekin joan nintzen. Gero, finalean, batere presiorik gabe aritu nintzen. Finaleko beste bost eskalatzaileak oso onak ziren eta seigarren egitea ere firmatuko nukeen momentu hartan.

Nolako izan zen finala?

Finalean lau bloke genituen egiteko. Irabazleak (Joseba Saiz) bi osatu zituen eta beste bostok bana. Nik osatutako blokea lehenengo saiakeran izan zen, eta beraz, horrek puntu asko eman zizkidan. Nahiz eta beste parte hartzaile batzuk gainerako paretetan nik baino pauso gehiago egin, bide bat aurreneko saiakeran burutzeak gehiago balio du. Horregatik lortu nuen bigarren postua.

Hala ere, sailkapena nahiko estu geratu zen. Irabazleaz aparte, denak oso paretsu aritu ginen.

Boulderra aipatu duzu. Pareta altuagoetan ere ibiliko zara noski. Bai, bai. Ni hasieratik sokarekin eskalatu beharreko paretetan aritu izan naiz, kirol eskaladan. Gehienetan hala ibiltzen naiz. Baina boulderra ere gustatzen zait eta batzuetan bloke batzuk egitea ere bai.

Zein ezaugarri behar dira kirol eskaladan eta zein boulderrean? Boulderrean bide motzagoak izaten dira. Indarra behar da, potentzia. Sokarekin zabiltzanean, paretak altuagoak direnez, erresistentzia gehiago behar izaten da. Teknika bietan behar da. Akaso, boulderrean indarrak gehiago kontatzen du, baina eskalatzeko abilitadea edukitzea garrantzitsua da

batean nahiz bestean.

Gaia aldatuz, eskaladak bi-daiatzeko aukera eman dizu. Nongo harkaitzetan ibili zara? Espainia aldean asko ibili naiz. Baita Austrian, Polonian eta leku gehiagotan ere. Baina gehien inpresionatu ninduen Txinako egonaldia izan zen. 17 urterekin Txinara joatea berezia izan zen.

Txinakoa munduko txapelketa izan zen. Espainiako selekzioarekin joan behar izan zenuen. Euskaldun asko joan ohi da Espainiarekin?

Txinan ni izan nintzen euskaldun bakarra. Baina Austrian adibidez lau egon ginen. Orain Diman Euskal Herriko selekzioarekin parte hartuko dut. Eta noski, gusturago joango naiz Espainiakoarekin baino, baina munduko txapelketan parte hartzea izugarriko aukera da. Joatea edo ezer ez egitearen artean, joatea aukeratu nuen.

Eskalatzetik bizi ahal izatea nola ikusten duzu?

**Zarauzko
finaleko
beste bost
eskalatzaileak
oso onak ziren eta
seigarren egitea
ere firmatuko
nukeen**

**Boulderrean
bide motzak
izaten dira.
Indarra behar da,
potentzia. Kirol
eskaladan
erresistentzia.
Teknika bietan
behar da**

**Larunbatean
Euskadiko
Kirol Eskalada
Txapelketan
aritutuko naiz.
Eta igandean Dima
Rock Master-en**



Antton, orain dela hiru aste Zarautzen jokaturako txapelketan *bloke* bat eskalatzen.

Ia ezinezkoa da. Akaso, eskalada munduan lan eginda bizi zaitezke; entrenatzaile bezala, ikastaroak emanaz eta abar. Bestela, badakit patrozinatzaileek emandakotik ezin dela bizi, ez baita ia ezer izaten. Eskalada praktikatzetik bizi direnak oso gutxi dira munduan.

Etorkizuneko kontuak alde batera utzita, asteburu honetan bi txapelketatan parte hartuko duzu. Larunbatean (maiatzak 17)

Dimako plazan jokaturako txapelketan parte hartuko dut. Euskadiko Kirol Eskalada Txapelketa izango da. Eskalatzeko panel batzuk jarriko dituzte plazan eta bi ataleko proba izango da. Finalerdietan, bi ibilbide egin beharko dira *flash* moduan (parte-hartzaileek ikus dezakete gainerakoek nola eskalatzen duten). Onenak finalera pasako dira eta horien artean dueluak egingo dira, hau da, bi parte-

hartzailearen arteko kanporaketak bide bakarrera. Horrela, txapeldun bat geratu arte.

Bestalde, igandean Dima Rock Master-a izango da Dimako kobazuloan. Bertan, Euskal selekzioarekin parte hartuko dut mundu osoko eskalatzaileek osatutako konbinatu baten kontra.

Azken txapelketako emaitza ikusita, zein espektatibarekin zoaz oraingora?

Aurreko txapelketa, Zarauzkoa, boulderra izan zen eta hau kirol eskalada da. Lehen esan bezala, ez da gauza bera. Zarautzen parte hartutako jende gehiena sokarekin hobeto aritzen dena da eta, gainera, nik uste dut Euskal Herrian maila altuagoa dagoela soka-eskaladan. Hala ere, orain Rodellarren (Huesca) aritu naiz eskalatzen eta erresistentzia lantzen. Ikusi egin beharko da zer gertatzen den. ||

Kirol eskalada eta boulderra Hernanin

HERNANIN badauzkagu eskalada praktikatzeko hainbat toki. Ezagunenak ondorengo biak dira:

Santa Barbara:

Gehienok ezagutuko dugu Santa Barbara mendiak Lasartera begira daukan harkaitza. Kirol eskalada egiteko egokia da eta ondo ekipatua dago. Horregatik, asko erabiltzen den pareta da, batez ere, uda partean.

103 eskalatzeko bide dauzka hiru sektoretan banatuta; lehen sektorean daude bide errazena eta bigarrenean (harkaitzaren erdian) zailagoak. Bestalde, egun bero eta eguzkitsuetan eskalatzeko *Tailandia* izeneko hirugarren sektorea daukagu, zuhaitzen arteko itzalean.

Maila guztietako eskalatzaileak aritzen dira St. Barbaran, harkaitzak berak zailtasun oso ezberdineko bideak baititu. Errazena 4. graduak ditu eta zailena *lapikoarena* izeneko bidea da, 8a+ zailtasun graduakoa. Paretan gehieneko altuera 20-25 metrokoa da.



Hatzi Klinbers:

Etxeberri auzoan dagoen rokodromo bat da. Orain dela bost urte inguru ireki zuen eskalatzaile talde batek. Bertan boulder handi bat, egongela, liburutegia (eskaladarekin lotutako liburu eta aldizkari asko-

rekin), komunak eta hainbat gauza gehiago aurki daitezke. Gazte askok eskalatzen du Hatzi Klinbersen eta urtean zehar txapelketak ere antolatzen dituzte. Azkeneko txapelketaren irabazlea Egoitz Alkorta gazte hernaniarra izan zen.

DOBERA SARIA IV

ARTELANEN LEHIAKETA



Dobera Euskara Elkarteak, Hernaniko artisten sorkuntza sustatu eta aitortzeko asmotan, eta artista horien lanak jendarean zabaltzeko bideak egitearren, **ARTELANEN LEHIAKETA** antolatu du DOBERA SARIAREN IV. edizioan.

OINARRIAK:

1.-Hernanin jaiok, bizitakoek edo bizi direnek hartu ahal izango dute parte lehiaketan.

2.- Lehiaketara **ikus-arteetako** era guztietako obrak aurkez daitezke, eta lehiakide bakoitzak gehienez lau obra aurkezteko aukera du.

Gala KOMUNIKAZIOA izango da eta obrak gai horrekin izango du lotura.

Lehiakideek dokumentazio hau aurkeztu behar dute:

-Izen-emateko orria behar bezala beteta.

-Ibilbide artistikoaren kurrikuluma.

-Aurkeztutako obra bakoitzaren azalpen laburra eta material grafikoa, edozein euskarritan, hori bai, **euskaraz** izan behar du. Irudi bakoitza identifikatu egingo da, izen-emateko orrian emandako zenbaki berarekin.

3. Lehiaketara aurkezten diren obrak **2008ko urriaren 3a baino lehen** bidali behar dira helbide honetara:

Dobera euskara elkarteak
Larramendi 11, behea
20120 HERNANI

4. Epaimahaia **Doberak** izendatuko du, eta gero berak aukeratuko ditu lehiaketarako obrak. **Antolatzaileek 2008ko azaroaren 7a baino lehen** emango die partaideei hartutako erabakiaren berri.

Lehiaketara aurkezten diren obrak **Biterin** izango dira **ikusgai**, erakusketa bat antolatuko du Doberak.

5. Bestalde, obra guztiak **katalogo batean jasoko dira**. Autoreek beren izen-abizenak eta beren obren erreproduzio grafikoa erabiltzen utziko dute, bai katalogoa editatzeko bai erakusketaren sustapena eta hedapena egiteko.

6. **Bi sari** izango dira.

1.- **Galari egokien lotzen zalona: 1500 euro**

2.- **Estetikoki balio handiena duena: 1500 euro**

7. Sariak oman gabe utzi daitezke obrak behar adinako balioa ez dutela erabakitzen bada.

8. Dobera Euskara Elkarteak bi urteko eskubidea izango du obrak erabiltzeko nahiz erreproduzitzeko, erakusketa ibiltariak antolatzearen.

9. Obrak lehiaketara aurkeztzerakoan eta jasotzerakoan sor daitezkeen garrario gastuak eta horien aseguruia partaideen kontura izango dira. Antolatzaileak ez dira erantzule egingo obrak garrario horietan jasari ditzaketen kalte edo galerengatik.

Obra guztiak behar bezala bilduta aurkeztu behar dira, berriz ere itzultzerakoan erabiltzeko moduko enbalajearekin bilduta, baita entrega pertsonalki autoreak berak egiten duenocan ere.

Erakusketan dauden bitarteko aseguruia, aldiz, erakunde antolatzaileek estaliko dute.

10. Lehiaketan esku hartze hutsak berez adierazten du lehiakideek onartzen dituztela oinarri hauek.



IZEN-EMATEKO:

- Azaldu Dobera euskara elkarteko bulegora: Larramendi 11, behea (Hernani)
- www.dobera.com webgunean eskuragarri dagoen izen-emate fitxa bete eta bidali dobera@dobera.com-era.

Denborapasak

S U D O K U - a

2	3				9			
5			3		1	8		
	6			5	2			
	7				6			2
6	1						5	3
9			2				7	
			5	9			4	
		9	1		3			7
			4				9	1

Hutsik dagoen kasila bakoitzean zenbaki bat jarri behar duzu, 1etik 9ra. Lerro, zutabe eta lauki (9 kasilekin osatutakoa) guztietan, 1etik 9ra zenbaki guztiak osatu behar dira. Baina, lerro, zutabe eta lauki bakoitzean ezin duzu zenbaki bera errepikatu.

AURREKO IGANDEKO ERANTZUNA

5	7	6	9	1	3	2	8	4
2	8	9	5	6	4	3	7	1
4	3	1	7	2	8	6	5	9
9	1	5	3	7	2	8	4	6
7	6	8	4	5	9	1	3	2
3	4	2	1	8	6	7	9	5
8	9	4	2	3	1	5	6	7
6	2	7	8	9	5	4	1	3
1	5	3	6	4	7	9	2	8

Flash batean...



Zuen argazkiak hemen argitaratuko ditugu. Ekarrri Larramendi 11ra edo bidali e-mailez internet@kronika.net helbidera. Argazkiek Hernani edo hernaniarrekin zerikusia izan behar dute. Aukeraketa Kronikak egingo du.

X Asteko agenda

MAIATZAK 19, astelehena:

- **Zilegi Eskola:** Sexualitatea. 14:30etatik 16:30etara.
- **Erakusketa:** Eskola umeek ingurumenari buruz egindako lanak. Biterin, hilaren 22ra arte.
- **Gazte Asanblada:** AHTaren Aurkako Astea, 26ra arte.

MAIATZAK 20, asteartea:

- **Hitzaldia:** Tristurari eta ezkortasunari aurre egin. Goiz Eguzkin, 17:00etan.

MAIATZAK 21, asteazkena:

- **Txalaparta Festa.**
- **Emanaldia:** Musika instrumentuak aukeratzeko emanaldia, Hernaniko Musika Eskolak, Biterin, 17:00etan.
- **Zilegi Eskolak:** Zeramika tailerra. 14:30etatik 16:30etara.

MAIATZAK 22, osteguna:

- **Chillida Leku:** Pintura lehiaketako epea bukatu.
- **Zilegi Eskolak:** Sorgintasunari buruzko tailerra. 14:30etatik 16:30etara.
- **Gure Etxola:** Arrantzale Museora irteera.

MAIATZAK 23, ostirala:

- **Txalaparta Festa.**

MAIATZAK 24, larunbata:

- **Kantuz Eguna:** Kantuz Abesbatzak, Milagrosan, 19:30etan.
- **Urretxa Mikologi Elkarte:** Hechora irteera.
- **Goiz Eguzki:** Castejonera irteera.
- **Txalaparta Festa.**

MAIATZAK 25, igandea:

- **Mendiriz Mendi:** Ituren, Mendaur eta Arantzara irteera.
- **Zikuñako Ama:** Bedaiora irteera.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzten duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.


ESKERTZA

† JOSE MARIA ECEIZA GARIN

Orain egun gutxi hil zen.

-Goian bego-

Haren emazteak, seme-alabak eta gainerako ahaideek asko eskertzen dizuegu modu batera edo bestera gure ondoan egon izana eta baita elizkizunetara etorri izana ere.



Hernanin, 2008ko maiatzaren 18an

JANTZI DENDA

AMBOTO

LIKIDAZIOA
AZKEN ERREMATEA

%60 ko deskontua

DESKONTU HAUNDIAGOA
JANTZI LOTEETAN

Nagusia 43 Amboto Jantzi denda Hernani

ARALAR TABERNA

XXIII MUS TXAPELKETA

<p>MAIATZAK 19, ASTELEHEN</p> <p>XILK - PITXURRI / MIKON - CEINON ZITON - ELIGRO / JONKIE - JOSEKI KETAUS - PIRO / INKXI - PIKI JOKE KINON - PIRO / INKXI - JEXEK</p>	<p>MAIATZAK 20, ASTEARTEN</p> <p>XORPE - MITHELEMI / PIRO - PIKIN ZINDON - RIGER / JONKIE - IRKXI ROBERTO - INKXI / JOHEMORI - JOHEMORI JULIO - MENTXI / RIGER - AGGUEL</p>
<p>MAIATZAK 21, ASTEAZKENA</p> <p>JOSU - GORKE / DOXI - OBER JUVI - BISI / INKXI - XINTXON ESTENEN - PERLES / MENTXI - JOKE LEON RIFE - IKXI / XINDONI - JUREKI</p>	<p>MAIATZAK 22, OSTEGUNA</p> <p>KIMON - GONI / JULEN - GUTIZ GONI - SILEXO / TXON - TXUTXI ALEXI - JANDRES / FELIX - JUVI TXONIN - JUVI / MOKU - KINTXO</p>

ZAPA KALEA 8
☎ 943 33 15 06

TELEFONAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● DYA: 943 464622 Autobusak: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 ● Anbulatorioa: 943 006666 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103
FARMAZIAK ● Egunez: Castilla Urbeta 7 - 943 552941 ● Gauez: Correa Perkaiztegi 8 - 943 336022

EGURALDIA ● **GAUR** Goizean ostare batzuetaz gozatu ahal izango dugu, baina eguerditik aurrera lainoak ugarituko dira berriro eta giro eze-gonkorra izango dugu. ● **BIHAR** Giro goibela eta bustia astearen hasieran. Egunean zehar zaparradak botako ditu. Baina egunaren amaieran atertzeko joera hartuko du. (euskaime)



Adin guztietako jendea ibili da lehenengo liburu azokan.

Liburu azokaren balorazio ona egin dute antolatzaileek

LIBURU azoka izan da Hernanin, aurten lehenengo aldiz, hilaren 1etik 11ra, Atsegindegi plazan. Euskadiko Liburu Azokan Batzordeak antolatu du azoka, udalaren laguntzaz. Dagoeneko euskal herriko beste bazter batean daude liburu eta postuak, baina tartetxo bat hartu dute liburu azokaren balorazioa egiteko.

Balorazioa ona

Antolatzaileen esanetan azokaren balorazioa positiboa izan da, ikaragarri saldu ez bada ere, jendea ibili delako, eta ibilitakoek, gehienek, gutxi edo gehiago, zerbait eraman dute. Zentzu horretan bisitari eta erostunen kopurua bat dator %100.

Nobelak eta eltze kontuak

Ezustekorik ez da izan eta

Hernaniko irakurleek gehien-goak irakurtzen duena irakurtzen dute, orain puripurian dauden lanak alegia. Besteak beste, honakoak: Kar-mele Jainoren *Zu bezain ahul*, Jon Arretxeren *Morto vivace*, Txalapartak atera berri duen *Movimiento de mujeres. Mujeres en movimiento*, Begoña Zabalarena, eta Toti Martinez de Lezearen nobela historikoak.

Haur eta gazteek ez dute zalantza haundirik izaten eta honelakoetan hain ezagunak egin diren Pirritx eta Porrot dira maitatuenak.

Badago liburu mota bat, irakurtzeko ez hainbeste, baina gozatzeko egina dena eta hernaniarrak konkistatu dituen; eltze kontuetaz hitz egiten duten liburu dezente saldu baitira azokan, sukaldaritzaz liburuak alegia.

Datorren urtean berriz

Gustura aritu dira saltzaileak Hernanin eta datorren urtean itzultzeko asmoa adierazi dute, merkatua urtetik urtera egiten baita. Ezer aldatzekotan kokalekua aipatu dute, beren ustetan Atsegindegi plaza ederra izan arren, kaxkotik gertuago nahiko bailukete egon. ||



ZINEA BITERIN

'Los Falsificadores' gaur

Los Falsificadores pelikula ikusteko aukera izango da gaur, Biteri kultur etxean. Bigarren Mundu Gerran kontzentrazio eremu bateko egoera kontatzen du pelikulak. Gaur, 19:30etan. ||



IRAGARKI MERKEAK

Pertsona euskalduna behar da Hernaniko tabernan udaran lan egiteko. Deitu: 616 589 445

Kamarera bat behar dugu Igeldoko sagardotegi batean lan egiteko, asteburuetan.

Interesatuek deitu: 635 746 559

Hernanin aukerako pixua salgai. Sukaldea, 3 logela, komuna, kalefakzioa... Kanpoaldera.

Deitu: 628 116 949.

Baserria hartuko genuke errentan, bi lagunek. Deitu: 656 703 814

BIDEA masajeak. Santa Barbara auzoa. Tel.: 656 78 64 15 (aurretik deitu).

Xanti Masajista. Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropraxia, osteopatia xamurra, bioaktibadore neurologikoa, kinesiologia, reflexologia. Deitu: 943 33 07 35 (Lizeaga, 2 P-1 B).

Yolanda estetika zentrua. Argi zapaldu bidezko depilazioa (azken berrikuntza), mantxa eta Kuperros. Haserako eskaintza. Froga dohainik. Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, erreflejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drainaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, gorputz eta aurpegi tratamenduak, oinen eta eskuen estetika. Eskatu ezazu programa informetiboa. Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologikoa eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

AKARREGI
Sagardotegia
 ORAIN URTE GUZTIAN ZABALIK
 poltsiko guztientzako menuak
 ✓ ostegun eta ostiral gauetan
 ✓ larunbat eguerdi eta gauetan
 ✓ eta igande eguerdietan.
 sagardoa botilan salgai urte guztian
 Akarregi auzoa. Akarregi baserria
 Tel.: 943 330 713
 Mug.: 660144 560 - 660 144 563
 HERNANI

Allianz
 ASEGURUAK
 bitzita -
 iturriak -
 ibilgailuak -
 etzak -
 komertzioak -
 enpresaak -
 ordura zibila -
 finantza seguruak -
 inbertituziak -
 agustin ezponda irizar
 agentzia
 Bulego berria:
 Nagusia, 13
 Telf.: 943 55 73 28
 Faxes: 943 33 57 71

Salesianos Urnleta Saleslarrak
Tfno. 943 55 17 89
www.salesianosurnleta.com
Batzilergo / Bachillerato (D - euskaraz):
 ► Zientziak eta teknologia
 ► Gizarte zientziak
Lanbide Heziketa / Formación Profesional:
 (Erdi eta Goi Mallako Zikloak)
 ► Elektrizitate / Elektronika
 ► Mantentimendua
 ► Grafikagintza
Puertas abiertas: 24 de mayo de 10:00 a 13:00
Ikastetxea ezagutzeko aukera:
Malatzak, 24 10:00etatik 13:00era